

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2024ko erroldari

Tokiko gobernu batzarrak, 2024ko ekainaren 20an egindako bilkuran, behin-behineko onspena eman zion jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2024ko erroldari (2024/S03.02.02.02/1 espediente), eta 2024ko uztailaren 1ean argitaratu zen ALHAOn, 73. zenbakian. Erabaki horren aurka erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabaki hori behin betiko bihurtzen da, eta argitara ematen da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98.3. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2024ko ordainagiriak ordaintzeko moduan egongo dira, borondatezko aldirian, 2024ko azaroaren 1etik abenduaren 31 bitarteko egun baliodontan, bi egun horiek barne.

Ordainagiriak helbideratuta ez dauzkaten zergadunek udaletxeko hiritarren kutzazainean eta euskal administrazioaren ordainketa pasabidean ordaindu ahal izango dute zerga hori, pasabide horretara udalaren web orriaren bidez (<https://udala.amurrio.eus/eus/zerbitzuak/ogasuna-eta-zerga-bilketa/ordainketa-pasabidea>) edo Eusko Jaurlaritzaren "Mipago Wallet" aplikazioaren bidez sartuta. Kobrantza aldia hasi baino 15 egun lehenago arte onartuko dira helbideratzeak.

Epe hori igarotakoan, ordaindu gabeko kuotak kobratzeko premiamenduko betearazte bide administratiboari emango zaio hasiera, eta kobratu beharrekoari ehuneko 20ra arteko errekar-gua aplikatuko zaio, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketarako Araudi Orokorrak; errekar-gu hori eta luzapenarena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Amurrio, 2024ko uztailaren 26a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA